

duzu koadernorik behar, orrialde horietan leku handia utzi dugulako zuk erantzunak emateko. Ipuinaren zati guztien ondotik honelako ariketek ikusi dituzu beti:

**A) IPUINARI BURUZKO GALDERAK:**

Galdera erraz batzuk egiten dizkizugu, ipuinaren argumentua ulertu duzun ala ez jakiteko.

**B) GRAMATIKA PIXKA BAT:** Gramatikazko puntu batzuk ematen dizkizugu, zuk euskara pixka bat lantzeko. Puntu hauek normalean ipuinaren testuarekin erlazionatuta daude.


**C) EKINTZAK:** Ekintza edo aktibitate hauek ikaskideekin euskaraz hitz egiteko aukera ematen dizute.

Eta ipuinari buruz zer esan? Gure ustez, laburra eta atsegina da. Irakurtzen hasten zara eta bukatu arte, ez dakizu zer gertatuko den.

Baina azken hitza zuk daukazu, noski. Ipuin honek ondo pasatzeko eta euskara pixka bat ikasteko balio badizu, gu poz-pozik geldituko gara.

Eta besterik ez. Eskerrik asko zure arretagatik eta hurrengorarte.

◆  
LEHENENGO ATALA



Hegazkin hori bat dabil zeruan.

**ASTEARTEA. GOIZEKO HAMARRAK...**

Bi aterpe daude zelaian. Hiru hegazkin daude aterpe nagusiaren barruan eta beste hegazkin bat aurrean. Neskatila bat dago zutik aterpe txikiaren ondoan. Julieta da bere izena.

Hegazkin hori bat dabil zeruan. Zelaira dator. Alain dago hegazkinean. Alain Julietaren neba da. Bera da pilotua, eta mutil gazte bati irakasten ari zaio. Gaztea Alainen alboan dago jezarrita.

Alain pilotu ona da.

—Eraman behe aldera hegazkina —esan dio Alainek bere ikasleari.


Hegazkina jaisten ari da, eta Alainek Julieta bere arreba ikusi ahal du zelaian.

—Begira arbola haiek —esan dio Alainek bere ikasleari— Joan beraien gainetik. Ederki! Orain ia behean gaude, eta poliki-poliki lurreratu ahal izango gara.

Alainen ikasleak polito gidatzen du. Hegazkina lurreratzen ari da. Gurpilek behea jo dute. Hegazkina geldi geratu da.

Ederki —esan dio Alainek ikasleari— Gaurtik aurrera zeuk bakarrik egingo duzu hegaz.

Julieta korrika doa bere nebarengana. Alain hegazkinetik jaitsi da.



Hegazkina lurreratzen ari da.

Nahi duzu hegalaldi bat egin nirekin? —galdetu dio arrebak.

Ez! Ezin dut hegaz egin zurekin orain —erantzuten dio nebak— Neure ikaslearekin egon behar dut lurrean. Mesedez, igon hegazkinera, eta ekarri handik nire poltsa.

Julieta hegazkinera joan da, eta atea zabaldu du. Barrura sartu da. Julietari asko gustatzen zaizkio hegazkinak. Bere neba ez dago begiratzen, eta Julieta pilotuaren jazarlekuan jarri da.

—Ni ere pilotua izango naiz —pentsatu du berak.

Momentu hartan gizon bat sartu da hegazkinera. Jantzi marroia dauka.

—Beharbada mekanikaria da —pentsatu du Julietak. Eta hegazkinaren atzeko aldera joan da.



Gizonak ez du ikusi neskatila.



Gizona pilotuaren jazarlekuan jarri da. Julieta zoluan dago jezarrita, eta gizonak ez du neskatila ikusi.


Mekanikariak martxan ipini du motorea. Hegazkinak lurra utzi du. Julietak ezin du saltatu. Ezin dio bere nebari deitu.

Alainek eta bere ikasleak beren hegazkina ikusi dute.

—Mekanikari hori nire aparailuan hegaz egiten ari da! —esan du Alainek.

—Non dago nire arreba? —galdetu dio bere ikasleari— Julieta ez dago zelaian.

Alain eta bere ikaslea zelaian zehar dabiltza. Eskuak jaso dituzte, baina hegazkinak ez die kasurik egin.



“Hegazkinean dago nire arreba” esaten du Alainek.

—Nire arreba, nire arreba! —esan du Alainek oihuka— Hegazkinean dago nire arreba.


Alain aterpe nagusira doa. Aterpearen aurrean hegazkin txiki bat dago. Alainek atea zabaldu du eta barrura sartu da.

—Aparailu honekin hegazkin horiari segituko diot —esan dio Alainek aterpeko mekanikari bati.

Atea oraindik zabalik dago. Gizon bat dator korrika. Salto batez barrura sartu da.

—Ni ere zurekin joango naiz! —esan dio gizonak Alaini.

—Hegazkin honetako pilotua zara zu? —galdetu dio Alainek.



“Ni ere zuekin joango naiz” esan dio gizonak Alaini.

-Ez, ni ez naiz pilotua —erantzun dio besteak. —  
Ni detektibea naiz, eta aireportu honetan lan egiten dut.

Hegazkina gora eta gora doa.

-Gizon hori espioi bat da —esan dio Alaini detektibeak.

Alain haserre dago.

-Espioia! —dio berak— Eta nire arreba berarekin dago. Gizon horrek ezin du nire arreba berarekin eraman!

-Ez! —erantzun du detektibeak— Ez diogu utziko.



## LEHENENGO ATALAREN LANKETA

### A) ULERMEN GALDERAK

1.- Zein egunetan gertatu da istorio hau?

---

---

2.- Zer da Alain?

---

---

3.- Julieta, Alainen lehengusina da? Zer da?

---

---

4.- Zertara doa Julieta hegazkinera?

---

---

5.- Zer egin du mekanikariak?

---

---

6.- Mekanikariak Julieta ikusi du?

---

---

7.- Nortzuk doaz hegazkin gorriaren atzetik?

---

---

8.- Mekanikaria, benetan zer da?

---

---

## B) GRAMATIKA PIXKA BAT

01.- EMAN HITZ HAUEN AURKAKOA ESALDI BATEAN:

Barruan: Hegazkina ez dago aterpe barruan, \_\_\_\_\_ dago.

Aurrean: \_\_\_\_\_

Gainean: \_\_\_\_\_

Ezkerraldean: \_\_\_\_\_

Behean: \_\_\_\_\_

02.- NOREKIN?

“Nahi duzu hegalaldi bat egin \_\_\_\_\_?” (Ni)

“Ez! Ezin dut hegaz egin \_\_\_\_\_ orain” (Zu)

“Neure \_\_\_\_\_ egon behar dut lurrian” (Ikasle)

“Ni ere \_\_\_\_\_ joango naiz!” (Zu)

“Eta nire arreba \_\_\_\_\_ dago” (Bera)

## C) EKINTZA

ORAIN, ZUETARIKO BATEK ZERBAIT GORDE EGINGO DU. ADIBIDEZ, IKASKIDE BATEN ERLOJUA. DENON ARTEAN GALDERAK EGINEZ, SALATUKO GARA ASMATZEN NON GORDE DUEN. GALDERAK EGITEKO BEHEKO ZERRENDAN DAUDEN HITZAK ERABILI BEHAR DITUZU:

- Gainean/ azpian
- Barruan/ kanpoan
- Atzean/ aurrean
- Ondoan, alboan
- Artean
- Ezkerraldean
- Eskuinaldean
- ...

## BIGARREN ATALA



Ikusten duzu hegazkin horia? — gandetzen du Alaine

### ASTEARTEA. GOIZEKO HAMAIAK.

Alain eta detektibea herriaren gainean zehar hegaz egiten ari dira.

—Ikusi duzu hegazkin horia? —galdetzen dio Alai-  
nek detektibeari.

—Bai! Hantxe dago. Oso arin doa —erantzun dio  
detektibeak.

—Baina egon lasai! Zuk guztiz erraz segitu ahalko  
diozu.